# Xedapen Orokorrak

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA**

**5008**

EBAZPENA, 2009ko abuztuaren 4koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiarena. Honen bidez, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Kontseiluaren sorrera eta bere funtzionamendu arautegia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzen da.

Abenduaren 21eko 6/2001 Legeak, Unibertsitateenak, apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoaren bidez aldatu zenak, lehenengo aldiz aipatzen du, aitzinsolasean, unibertsitateak oinarrizko balio-transmititzaile gisa duen eginkizuna eta gaineratzen du elkarrizketa, bakea eta herrien arteko lankidetza unibertsitateak bereziki zaindu behar dituen balioak direla. Era berean, 92. artikuluan, nazioarteko lankidetzari eta solidaritateari buruzkoan, honakoa aipatzen da: «unibertsitateek beharrezko sustatze lanak egingo dituzte bertako kideek nazioarteko lankidetzako eta solidaritateko jarduera eta proiektuetan parte har dezaten. Horrez gain, aurrerabide solidariorako funtsezko elementu gisa hartuta, bakearen kultura, garapen iraunkorra eta ingurumenarekiko errespetua indartzen laguntzen duten jarduerak eta ekimenak faboratuko dituzte».

Bestalde, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuek lehenengo tituluan, UPV/EHUren izaerari eta helburuei buruzkoan, adierazten dute Unibertsitateak nazioarteko trukea eta lankidetza indartuko dituela, eta, bereziki, Europako esparrua eta garapenerako lankidetza aipatzen dira.

Garapenaren aldeko unibertsitate lankidetza parte hartzen duten pertsonak bai gizaki gisa bai akademikoki aberasten ditu, baita beren unibertsitateak ere. Horren haritik, UPV/EHU Garapenerako lankidetza arloko Unibertsitateen Jokabide Kodeari atxiki zitzaion. Aipatu kodea Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziako (CRUE) Nazioarteko Harremanetarako Espainiako Unibertsitate Batzordeak (CEURI) onartu zuen 2007ko otsailaren 8an egindako Gobernu Kontseiluan.

Garapenerako lankidetza arloan UPV/EHUk burutu dituen jarduerek eta Garapenerako Lankidetza Bulegoa bezalako egitura espezializatuen presentziak garbi uzten dute garapenaren aldeko unibertsitate lankidetza oro har unibertsitatearen internazionalizaziora edo unibertsitateen arteko nazioarteko lankidetzara bideratutako beste jarduera batzuetatik desberdintzen dela eta, beraz, plangintza, koordinazio eta kontrol sistema egokia behar duela.

# Disposiciones Generales

**UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO**

**5008**

RESOLUCIÓN de la Secretaria General de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, de 4 de agosto de 2009, por la que se ordena la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la creación del Consejo de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU y su reglamento de funcionamiento.

La Ley 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades modificada por la Ley Orgánica 4/2007, de 12 de abril, en su preámbulo, alude por primera vez al papel de la universidad como transmisor esencial de valores, y añade que el fomento del valor del diálogo, de la paz y de la cooperación entre los pueblos, son valores que la universidad debe cuidar de manera especial. Asimismo, en su artículo 92 de la cooperación internacional y la solidaridad, establece que las universidades fomentarán la participación de los miembros de la comunidad universitaria en actividades y proyectos de cooperación internacional y solidaridad. Y, propiciarán la realización de actividades e iniciativas que contribuyan al impulso de la cultura de la paz, el desarrollo sostenible y el respeto al medio ambiente, como elementos esenciales para el progreso solidario.

Por su parte, los Estatutos de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, en el Título primero, dedicado a la naturaleza y fines de la UPV/EHU, establecen que la Universidad contribuirá al intercambio y cooperación internacionales, haciendo mención especial al marco europeo y a la cooperación al desarrollo.

La Cooperación Universitaria al Desarrollo enriquece humana y académicamente a las personas que en ella participan y a las Universidades a las que pertenecen. En este sentido, la UPV/EHU aprobó su adhesión al Código de Conducta de las Universidades en materia de Cooperación al Desarrollo aprobado por el Comité Español Universitario de Relaciones Internacionales (CEURI), de la Conferencia de Rectores de las Universidades Españolas (CRUE), en el Consejo de Gobierno celebrado el 8 de febrero de 2007.

Las actividades relacionadas con la cooperación al desarrollo llevadas a cabo en el seno de la UPV/EHU, y la presencia de estructuras especializadas como la Oficina de Cooperación al Desarrollo, demuestran que la Cooperación Universitaria al Desarrollo constituye una actividad diferenciada de otras orientadas de modo general a la internacionalización de la Universidad o a la cooperación internacional entre Universidades, y que por lo tanto requiere un sistema de planificación, coordinación y control adecuado.

Garapenerako lankidetza arloko Unibertsitateen Jokabide Kodean ezarritako ildoei jarraituta, beharrezkoa da UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Kontseilua sortzea garapenerako lankidetza arloko sustapen, koordinazio eta eztabaida organo gisa, bai arlo honetan eskumena duen zuzendaritzari (egun, Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaritzari) bai UPV/EHUko beste edozein gobernu, ordezkaritza eta aholkularitza organori babesa eta laguntza eskain diezaien.

Eta, UPV/EHUren Estatutuetako 218.2 artikuluak xedatzen duen bezala, Gobernu Kontseiluari dagokio kide anitzeko organoak sortzea.

Otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, honakoa ezartzen du 10.2 artikuluan: «Antolaketaren eta jarduteko moduaren gainean unibertsitate publikoko gobernu-organoek emandako estatutuak eta arauak, baita horien gaineko aldaketak eta orokorrean aplikatzekoak diren xedapenak ere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira». Hortaz, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Kontseilua Unibertsitateko antolaketaren parte den heinean, beharrezkoa izango da horren sorrera EHAAn argitaratzea, baita, hala badagokio, funtzionamendu araudia ere.

Horregatik guztiagatik, honakoa

ERABAKI DUT:

***Lehenengoa***.– UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Kontseiluaren sorrera eta bere funtzionamendu arautegia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

***Bigarrena***.– Arautegia argitaratzen den egunean sartuko da indarrean.

***Hirugarrena***.– Erabaki hau irmoa da; beraz, horren kontra aukerako berraztertze errekurtsoa baino ezin aurkez dakioke, hilabeteko epean, erabaki hau eman duen organo berberari. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke administrazioarekiko auzietako Bilboko epaitegian, bi hilabeteko epean.

Leioa, 2009ko abuztuaren 4a.

Idazkari nagusia,
EVA FERREIRA GARCÍA.

Siguiendo las directrices establecidas en el Código de Conducta de las Universidades en materia de Cooperación al Desarrollo, surge la necesidad de crear el Consejo de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU como órgano de promoción, coordinación y discusión en materia de cooperación al desarrollo, que actúe de soporte y ayuda tanto a la Dirección competente en esta materia, actualmente, la Dirección de Responsabilidad Social, como a cualquier otro órgano de gobierno, representación y asesoramiento de la UPV/EHU.

Y tal y como dispone el artículo 218.2 de los Estatutos de la UPV/EHU, corresponde al Consejo de Gobierno la creación de órganos colegiados.

La Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco establece en su artículo 10.2 que «Los estatutos y las normas de organización y funcionamiento de la universidad pública, así como sus modificaciones y las disposiciones de general aplicación que dicten los órganos de gobierno de la misma, serán publicados en el Boletín Oficial del País Vasco», por lo tanto, en la medida en que el Consejo de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU es parte de la organización de la Universidad, será necesario publicar en el BOPV su creación, así como, en su caso, el Reglamento de funcionamiento.

Por todo ello,

RESUELVO:

***Primero***.– Ordenar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la creación del Consejo de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU y su Reglamento de funcionamiento.

***Segundo***.– Este Reglamento entrará en vigor el mismo día de su publicación.

***Tercero***.– Esta Resolución por ser firme, pone fin a la vía administrativa y contra la misma sólo se podrá interponer recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes, ante el mismo órgano que la dictó o recurso contencioso administrativo ante los Tribunales de lo Contencioso de Bilbao en el plazo de dos meses.

Leioa, a 4 de agosto de 2009.

La Secretaria General,
EVA FERREIRA GARCÍA.

ERANSKINA

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Kontseiluaren funtzionamendu araudia

***1. artikulua.***– Atxikitzea.

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Kontseilua, organikoki, garapenerako lankidetzaren gaineko eskumena duen zuzendaritzara atxikiko da.

***2. artikulua.***– Helburua.

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Kontseilua garapenerako lankidetza arloan unibertsitate osorako lan, kontsulta eta partaidetza organo gisa eratu da.

***3. artikulua***.– Eskumenak.

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Kontseiluak ondorengo eskumenak izango ditu:

1.– Garapenerako lankidetza arloko Unibertsitateen Jokabide Kodearen aplikazioa bultzatzea. Hala, kodea abian jartzen lagunduko du, hobekuntza proposamenak prestatuko ditu eta irizpideak proposatuko ditu erabat garatu ahal izateko.

2.– Garapenerako lankidetza arloan UPV/EHUk abiarazten dituen plan, egitasmo eta jardunak prestatzeko proposamenak egitea.

3.– Garapenerako lankidetza arloko Unibertsitateen Jokabide Kodea eta horri lotuta ezarritako unibertsitate politikak aplikatzerakoan finkatu diren helburuak eta gauzatu diren ekintzak zenbateraino bete diren ikusteko jarraipena eta ebaluazioa egitea.

4.– Nazioarteko solidaritatearen esparruan eztabaida kritikoa indartzea.

5.– Beste erakunde eta gizarte eragile batzuekin garapenerako lankidetzako baterako ekintzak sustatzea.

6.– Unibertsitateak garapenerako lankidetza arloan egindako jardunak zabaltzea.

7.– Garapenaren aldeko unibertsitate lankidetzaren esparruan UPV/EHUko gobernu, ordezkaritza eta aholkularitza organoek jartzen dioten beste edozein.

Batzordeari bere eskumenekoak diren edo bere ekimenez garatzen diren arloetan hartutako erabaki guztien berri emango zaio, bereziki, kontuan izan ez direnean.

***4. artikulua***.– Osaera.

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Kontseilua ondorengoek osatuko dute: garapenerako lankidetzaren inguruko eskumena duen errektoreordeak, buru gisa; garapenerako lankidetzaren inguruko eskumena duen zuzendariak, errektoreorde eskuduna ez dagoenean buru izango dena; eta jarraian aipatzen diren pertsonek. Hauek zehaztutako taldeetako kideek aukeratuko

ANEXO

Reglamento de funcionamiento del Consejo de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU

***Artículo 1***.– Adscripción.

El Consejo de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU se adscribe a efectos orgánicos a la Dirección que ostente la competencia sobre cooperación al desarrollo.

***Artículo 2***.– Finalidad.

El Consejo de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU se constituye como el órgano de trabajo, consulta y participación de la comunidad universitaria en materia de cooperación al desarrollo.

***Artículo 3.***– Competencias.

El Consejo de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU tendrá las siguientes competencias:

1.– Impulsar la aplicación del Código de Conducta de las Universidades en materia de Cooperación al Desarrollo, colaborando en su puesta en práctica, elaborando propuestas de mejora y proponiendo criterios para su completo desarrollo.

2.– Realizar propuestas para la elaboración de los planes, programas y actuaciones que, en materia de cooperación al desarrollo, ponga en práctica la UPV/EHU.

3.– Hacer un seguimiento y evaluación del cumplimiento de los objetivos fijados y de las acciones realizadas en la aplicación del Código de Conducta de las Universidades en materia de Cooperación al Desarrollo y las políticas universitarias adoptadas al respecto.

4.– Impulsar el debate crítico en el ámbito de la Solidaridad Internacional.

5.– Impulsar acciones conjuntas de cooperación al desarrollo con otras instituciones y agentes sociales.

6.– Difundir las actuaciones desarrolladas en materia de cooperación al desarrollo por la comunidad universitaria.

7.– Cualquier otra que, dentro del ámbito de la cooperación universitaria al desarrollo le sea encomendada por los órganos de gobierno, representación y asesoramiento de la UPV/EHU.

La Comisión será debidamente informada de todas las decisiones tomadas en materias de su competencia o desarrolladas bajo su iniciativa y especialmente, cuando no se hayan tenido en cuenta.

***Artículo 4***.– Composición.

El Consejo de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU estará constituido por el Vicerrector o Vicerrectora que ostente la competencia sobre cooperación al desarrollo, que lo preside, el Director o Directora que ostente la competencia sobre cooperación al desarrollo, que lo presidirá en ausencia del vicerrector o vicerrectora competente, así como las siguientes personas, que

dituzte, euren artean, eta errektoreak izendatuko ditu. Honela banatuko dira:

– Garapenerako lankidetzarekin erlazionatuta dauden UPV/EHUko institutu, katedra edo beste egitura batzuetako ordezkari bana.

– Garapenerako lankidetzarekin erlazionatutako unibertsitate elkarteetako 4 ordezkari. Horietatik bi, gutxienez, ikasleak izango dira.

– Diru-sarreren 0,7 garapenaren aldeko unibertsitate lankidetzara bideratzen duten UPV/EHUko ikastegi, sail, institutu edo beste egitura batzuetako ordezkari bana.

– Baliabideak garapenaren aldeko lankidetzara bideratzen dituzten 0,7 Funtsetako bakoitzeko ordezkari bana.

– Garapenerako lankidetza arloan esperientzia duten 3 pertsona. Errektoreak aukeratuko ditu, errektoreordetza eskudunaren proposamenari jarraiki eta UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Kontseiluari berari entzun ondoren.

Garapenerako Lankidetza Bulegoko teknikaria, idazkari lanetan, hitzarekin baina botorik gabe.

Kontseilukideak lau urteko aldirako izendatuko dira eta horren ondotik beste aldi baterako baino ezin izango dira aukeratu. Ikasleen ordezkariak gehienez lau urtez izan daitezke kontseilukide, betiere, ikasleak diren bitartean.

Kontseilukideei kargua kendu ahal izango zaie segidan bi bileratara edo aldizka lautara huts egin eta arrazoirik eman ez badute.

***5. artikulua***.– Funtzionamendua.

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Kontseiluaren funtzionamendu araubidea ondorengoa izango da:

a) UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Kontseiluak bai Osokoaren bidez bai azpibatzordeen bidez jardun ahal izango du. Azpibatzordeak UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Kontseiluak berak hala adostuta edo garapenerako lankidetza arloko eskumenak dituen zuzendariak hala erabakita sortuko dira. Azpibatzordeak sortzeko erabakiak horien funtzioak eta osaera finkatuko ditu.

Azpibatzordeetan xede izango dituzten arloekiko lotura estua duten Unibertsitateko beste pertsona batzuek ere parte hartu ahal izango dute.

b) Egoki irizten denean, unibertsitateaz kanpoko pertsonek ere parte hartu ahal izango dute UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Kontseiluaren eta azpibatzordeen bileretan, gai zerrendako punturen batekin erlazionatutako kontuetan iritzi edo informazio interesgarriak eskain ditzaten. Bilerako aktan jasota geratuko da horien partaidetza.

elegidas por y de entre las y los miembros de los colectivos que se detallan, serán nombrados por el rector, y distribuidos de la siguiente manera:

– 1 representante de Institutos, Cátedras universitarias u otras estructuras de la UPV/EHU relacionadas con la Cooperación al Desarrollo.

– 4 representantes de las asociaciones universitarias relacionadas con la cooperación al desarrollo. Al menos dos de ellos pertenecerán al colectivo del alumnado.

– 1 representante de los Centros, Departamentos, Institutos universitarios u otras estructuras de la UPV/EHU que aportan el 0,7 de sus ingresos propios a la cooperación universitaria al desarrollo.

– 1 representante de cada uno de los Fondos 0,7 que aportan recursos a la cooperación universitaria al desarrollo.

– 3 personas con experiencia en cooperación al desarrollo, designadas por el Rector o la Rectora, a propuesta del Vicerrectorado competente, oído el propio Consejo de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU.

La o el Técnico de la Oficina de Cooperación al Desarrollo, que actuará como Secretaria o Secretario, con voz pero sin voto.

La designación de las y los vocales se hará para cuatro años, y sólo cabrá una única designación consecutiva. Las y los representantes del alumnado podrán mantener su designación hasta cuatro años, siempre que sigan perteneciendo a dicho colectivo.

Las y los vocales podrán ser cesados por inasistencia injustificada a dos reuniones consecutivas o a cuatro alternas.

***Artículo 5***.– Funcionamiento.

El régimen de funcionamiento del Consejo de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU será el siguiente:

a) El Consejo de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU podrá funcionar tanto en Pleno como en Subcomisiones, las cuales se crearán bien por acuerdo del propio Consejo de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU, o bien por decisión de la Directora o Director que ostente las competencias en cooperación al desarrollo. El acuerdo de creación establecerá las funciones así como la composición de la misma.

Podrán formar parte de las Subcomisiones otras personas de la comunidad universitaria estrechamente vinculadas a las materias para las cuales se crean.

b) Cuando se estime oportuno podrán participar en las reuniones del Consejo de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU o de las Subcomisiones personas ajenas a la comunidad universitaria, con el objeto de que aporten opiniones o informaciones de interés en asuntos relacionados con algún punto del orden del día. En el acta de la reunión se hará constar su asistencia.

Osokoa lehendakariak, lehendakariordeak edo 5 kontseilukidek hala proposatuz gero bilduko da.

Deialdiak ohikoak edo bereziak izango dira. UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Kontseiluak onartutako urteko egutegian jasotzen diren bilerak ohikoak izango dira eta gainerakoak, berriz, bereziak.

Deialdi orriak eta beharrezko dokumentazioa erakundeak dituen bitarteko elektronikoez baliatuta bidaliko dira. Bai deialdi orriak bai dokumentazioak bilera hasi baino, gutxienez, 48 ordu lehenago egon behar dute UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Kontseiluko pertsonen eskura.

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Kontseiluak bertaratuen gehiengo soilez hartuko ditu erabakiak. Gehiengoa ez duen iritzi batek UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Kontseiluko 4 kideren babesa baldin badu, hori ere bukaerako dokumentuan jasoko da.

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Kontseiluko idazkariak bilkura bakoitzeko akta egingo du eta, bertan, hartutako erabakiak adieraziko dira.

Akta UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Kontseiluaren esku geratuko da garapenerako lankidetza arloko eskumenak dituen errektoreordetzaren bulegoetan.

Bilkuretako gai zerrenda lehendakaritzak prestatuko du, Kontseilua osatzen duten pertsonen proposamenak aintzat hartuta.

AZKEN XEDAPENA

Garapenerako lankidetza arloko errektoreorde eskudunak UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Kontseiluaren jardunbide egokirako beharrezkoak diren argibide guztiak eman ahal izango ditu.

Hemen ezarri ez den guztian, aplikagarri diren araubide juridikoko eta administrazio prozedura erkideko arauak aplikatuko dira, unibertsitateari buruzko legerian ezarritako antolakuntzako egiturara eta prozedura berezietara behar bezala moldatu ondoren.

El Pleno se reunirá a propuesta de la presidencia, de la vicepresidencia, o a propuesta de 5 de sus integrantes.

Las convocatorias podrán ser ordinarias y extraordinarias. Serán ordinarias las reuniones previstas en el calendario anual aprobado por el Consejo de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU, siendo las restantes extraordinarias.

La remisión de las convocatorias y de la documentación necesaria se realizará por los medios electrónicos institucionales. Convocatoria y documentación deberán estar a disposición de las personas que integran el Consejo de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU con 48 de antelación a la fecha de celebración de la reunión, como mínimo.

El Consejo de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU adoptará sus acuerdos por mayoría simple de las y los presentes. Siempre que una posición no mayoritaria cuente con el apoyo de 4 integrantes del Consejo de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU, se añadirá su contenido al documento final.

La Secretaria o Secretario del Consejo de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU levantará de cada sesión la correspondiente acta que contendrán los acuerdos adoptados.

El acta quedará a disposición del Consejo de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU en las dependencias del Vicerrectorado que tenga las competencias en cooperación al desarrollo.

El orden del día de las sesiones será elaborado por la Presidencia, teniendo en cuenta las propuestas de las personas que la integran el Consejo.

DISPOSICIÓN FINAL

La Vicerrectora o Vicerrector competente en materia de cooperación al desarrollo podrá dictar cuantas instrucciones sean necesarias para el buen funcionamiento de del Consejo de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU.

En lo no previsto, serán de aplicación las normas de régimen jurídico y de procedimiento administrativo común aplicables a las administraciones públicas, con las adaptaciones necesarias a su estructura organizativa, a los procedimientos especiales previstos en la legislación sectorial universitaria.